

AIORA JAUREGI PAGALDAY

B Maila | Olerkia | 1. saria

Aiora Jauregi Pagalday naiz, 15 urteko neska ataundarra. Egun, Beasaingo Txindoki institutuan ikasten dut, DBH4. mailan. Nire denbora librean, gauza asko ditut gustuko, kirola egitetik hasi eta artea lantzeraino. Idaztea ere gustuko dut, nire burutapen eta ideiak bertan islatu baititzaket. Nire olerkiari begira, askotan, denbora da ihes egiten diguna. Orainaldian bizi nahi dugu, baina iraganeko oroitzapenek bertan diraute. Etorkizunaren beldur gara, eta txikitako zoriontasun eternal hartan bizi nahi genuke, denborak aurrera egitea bultzatzen gaituen arren. Ea gustukoa duzuen!



AINGURATUAK

Ainguratuak

Bota dut.

Bota dut aingura

oroitzapenen ozeanora.

Ez dut mugitu nahi,

ez dut joan nahi.

Bota dut aingura ozeanora.

Erregutu diot,

oszilazio eternalean dabilen

erlojuari,

ez jarraitzeko.

Geratzeko, pausatzeko,

behingoz.

Geratzeko, pausatzeko,

betirako.

Tik - tak

“Ez!”

Oihuaren uhinak galdu dira

oihartzunik ez den ozeanoan.

Lotu dut aingura,

ez dut joan nahi,

ez dut askatu nahi.

Lotu dut aingura itsasontzira.

Eztarriko korapiloak bezain *estu* lotu dut

olatuek

aurrera eraman ez nazaten.

Tak - tik

Han ikusi ditut igerian,

paperezko ontziak, kometa *h a u t s i a k*

amonaren kontuak, amaren kantuak

hartza panpinak eta koloretako pultserak

Han.

Igerian.

Uretara salto egin nahi dut,

igerian ibili nahi dut,

nire gorputza

minez

estali nahi dut

-urak sendatuko duen esperantzaz-.

Tik - tak

Aingurak bertan dirau

baina olatuek aurrera bultzatzen naute, iparraldera

hitzek zentzurik ez duten

denborak baliorik ez duen

arrosak landatzen diren

eta ahaztua izango naizen

iparraldera.

Gero eta bortitzago, zakarrago

Orain tik

gero tak

tik tak

Tak - tik

Denbora aurrera doa

-iraganean ainguratuak bagaude ere-.

Tik-tak

Tak-tik

...

Eta ahaztutakoekin batera

ahaztuak bihurtuko gara

berriro.